



Gipuzkoako Foru Aldundia



HIZKUNTZA PAISAIAREN LABORATEGIAREN MEMORIA ETA EKARPEN METODOLOGIKOA

Donostia, 2007ko apirila.



AURKIBIDEA

1.- TESTUINGURUA..... 3

2.- PLANTEAMENDUA: HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK 4

3.- HIZKUNTZA PAISAIA SUBJEKTIBOAREN ESPERIMENTAZIOA 6

4.- HIZKUNTZA PAISAIA OBJEKTIBOAREN ESPERIMENTAZIOA..... 8

5.- ELKARRIZKETA SAKONEN ONDORIOAK 12

6.- BEHAKETA ZUZENAREN ONDORIOAK..... 15



1.- TESTUINGURUA

- Hizkuntza normalizaziorako esperientzia berrien Laborategia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuak bultzatu eta Siadeco Ikerketa Aplikaturako Etxeak teknikoki diseinatu eta gidatutako proiektua da; Aldundiko Zerbitzu berak sustatzen duen aholkularitza integralerako TEKNIKARI programaren barruan du beraz tokia Laborategi horrek.
- Proiektu berritzailea izan da, udal teknikariek euren gertuko errealitatearekin harreman zuzena izan eta hizkuntzaren biziberritze prozesuetan garrantzitsuak diren gaien inguruan esperimendatzea lortu nahi izan baita; guzti hori, oinarri tekniko eta zientifikoetara lotuak egon diren irizpideei jarraiki lanean arituz gainera.
- 2005eko martxotik 2006ko ekainera bitartean aurrera eraman den TEKNIKARI programako lehen Laborategia, Hizkuntza Paisaiaren ingurukoa izan da. Hizkuntza paisaiak, hizkuntzari buruzko irudi eta jarreratan zuzenean eragiten baitu; paisai horrek transmititu nahi duen mezuaren tratamendu estetiko, formal eta linguistikoek, ikus entzunezko estimulu bat sorrarazten dute eta zentzumenen bidez, hizkuntzaren pertzepzioan eta hizkuntzarekiko motibazioetan izaten dute eraginik.
- Laborategiaren hasierako helburuak bat egiten du azken emaitzarekin; esperimendatze dinamika bat sustatu eta bideratzea lortu baita eta prozesu hori bera da proiektuaren emaitza eta lorpen gisa kontsideratu beharrekoa. Hipotesi batzuk errealitatean testatzeko egindako ahaleginak eta esperimendazio prozesu batean parte hartzeak, esperientziarako ateak zabaltzea ekarri du (hipotesi desberdinak lantzea, neurketarako aldagaiak zehaztea, neurketarako zailtasunak ezagutzea, berrikuntzarako lan ildo berriak ikustea, ...) eta horixe izan da hain zuzen ere proiektu honen ondorioz garrantzitsuena.



- Laborategiko esperientzia hau, ondorengo 5 udalerrri eta bertako udaletako euskara teknikariren parte hartzeari esker egin ahal izan da: Aretxabaleta, Arrasate, Errenteria, Legazpi eta Zumarraga.

2.- PLANTEAMENDUA: HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

- Laborategi honen planteamendua, herritarren eguneroko bizitzan hizkuntza paisaiak dituen dimentsio subjektibo eta objektiboaren arteko bereizketan oinarritu da:
 - subjektiboa: paisai horren aurrean kokatzen diren eta paisai hori ikusi eta entzuten duten herritarren bizipen eta pertzepzioek osatzen dutena.
 - objektiboa: eremu eta momentu jakin batean dauden ikus-entzunezko estimulu objektiboak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) izango liratekeenak.
- Hortik abiatuta, honakoak izan dira proiektuaren helburu nagusiak:
 - 1- Hizkuntza paisaia objektiboaren eta hizkuntza paisaia horren aurrean jartzen diren pertsonen hizkuntza paisaia subjektibo edo "bibentzialaren" arteko alderaketak egitea.
 - 2- Norberaren hizkuntza paisaiaz bakoitzak egiten duen diskurtsoaren eta oso gertuko beste pertsona batzuek egindako diskurtsoaren arteko alderaketak egitea, ikusteko gertukoaren pertzepzio eta ikusmoldeek zenbateraino baldintzatzen duten norberaren pertzepzioa.
- Esperientzian parte hartu duten eragile desberdinen arteko harreman-fluxuak bideratzeko, komunikazio-sistema desberdinak erabili dira, funtzio komunikatibo desberdinei erantzunez: informazioa eta azalpenak (marko teoriko metodologikoaren inguruan), formazioa (informazio bilketarako tekniken inguruan), parte hartzea eta jarraipena (kontrastea, zalantzak, iritziak...):



- Fase desberdinetan komunikazio nahiz kontrasterako, Aldundiko Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuko, Udaletako Hizkuntza normalkuntzarako eta Siadecoko teknikarien arteko aurreko bilerak egin dira; ahozko eta idatzizko komunikazio erak erabili dira bilera horietan.
- Proiektuaren jarraipen lanetarako eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzeko telefono nahiz posta elektronikoko bidezko kontaktuak izan dira.
- Marko teoriko-metodologikoaren garapenerako eta informazio bilketa prozesuan zehar ere, euskarri desberdinak diseinatu eta prestatu dira. Irizpide metodologikoen aplikazio praktikoa aurrera eraman da euskarri horien bitartez eta guztira, 14 euskarri desberdin izan dira Laborategirako lan prozesuan zehar sortu eta erabili direnak.

Esperimentazio-objektua (5 saiakuntza)				Esperimentaziorako teknika eta euskarriak				
Euskararen ezagutza maila ertaina duten udalerriak	Familia mistoak (Udalerri bakoitzean, bat)	Hiru belaunalditako famili kideak		Eraikitako eguneroko bizimoduko ibilbideak Aitona-amona 20 Aita-ama 20 Seme-alaba 20	Egindako elkarrizketa sakonak	Behaketa zuzen ez parte- hartzailea (aztertutako kasuak)		Dokumentazio grafikoa: kontuan izandako argazkiak
		Aitona-amona 10	Aita-ama 10			Seme-alaba 10	Ibilbide kopurua	
5	5	30		60	30	27	2.998	1.850 inguru



3.- HIZKUNTZA PAISAIA SUBJEKTIBOAREN ESPERIMENTAZIOA

- Hizkuntza paisaia subjektiboa herriz herri aztertzeko esperimentazio prozesuaren urrats nagusiak ondorengoak izan dira:
 - Hiru belaunaldi desberdinetako 6 kidez osatutako familia baten aukeraketa estrategikoa (aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak): euskara mailari dagokionean izaera mistoa duena eta euskararen berreskurapenerako joerarekin (bi seme-alabek euskaraz badakite, gurasoetako batek daki euskaraz edo/eta aiton-amonetako batek daki euskaraz)
 - Aukeratutako famili kideei egin beharreko elkarrizketa sakonetan erabiltzeko galdera-estimuluenguz inguruko hausnarketa esperimentalak.
 - Zuzeneko informazio kualitatiboaren bilketa: elkarrizketa pertsonalak prestatu eta famili kide desberdinei egitea.
 - Famili kideen tipologia soziodemografikoa, soziolinguistikoa eta psikografikoa aztertzea.
 - Egindako elkarrizketa guztien transkribapen lanak.
 - Familiako kide desberdinen ibilbideen definizioa eta mapifikazioa: asteguneko eta asteburuko ohiko egun batena (24 orduko orotzapen test batean oinarrituta)
 - Famili kide bakoitzak bere eta beste kideen hizkuntza paisaiari buruz dituen pertzepzioak identifikatu eta jasotzea.
- Guztira 30 elkarrizketa sakon egin ziren, 5 familietako bakoitzean, 3 belaunaldi desberdinetako 2na kide elkarrizketatu baitziren.



OROITZAPEN-TESTA: GIDOIAREN GALDERAK

Azken astegunaren oroitzapen-testa		Azken asteburu egun baten oroitzapen-testa	
Famili kide bakoitzaren ASTEGUN bateko ibilbidea	Famili kide bakoitzak familiako beste kideen ASTEGUNeko ibilbideei buruz dituen pertzepzioak	Famili kide bakoitzaren ASTEBURUKO ibilbidea	Famili kide bakoitzak familiako beste kideen ASTEBURUKO ibilbideei buruz dituen pertzepzioak
1.- Asteguneko azken egunean pentsatu eta esan zer egin duzun ohetik jaiki eta berriz oheratu arte. Ze gauza egin duzu? Nora-zein lekutara-joan zara? Nondik pasatu zara? Nola mugitu zara leku batetik bestera? Norekin?...	3.- Zeintzuk dira zure familiako kide bakoitzak asteguneko egun normal batean egiten dituen gauzak? Nora joaten da?. Nondik pasatzen da?...	5.- Azken asteburuko egun batean pentsatu eta esan zer egin duzun ohetik jaiki eta berriz oheratu arte. Ze gauza egin duzu? Nora-zein lekutara-joan zara? Nondik pasatu zara? Nola mugitu zara leku batetik bestera? Norekin?...	7.- Zeintzuk dira zure familiako kide bakoitzak asteburu egun normal batean egiten dituen gauzak? Nora joaten da?. Nondik pasatzen da?...
2.- Momentu horietako bakoitzean pentsatuz, zer oroitzen duzu ikusi eta entzun duzunaz?	4.- Zein dira familiako kide horietako bakoitzak egun normal bateko eginkizunetan entzuten eta ikusten dituen gauzak?	6.-Momentu horietako bakoitzean pentsatuz, zer oroitzen duzu ikusi eta entzun duzunaz?	8.- Zein dira familiako kide horietako bakoitzak asteburuko egun normal bateko eginkizunetan entzuten eta ikusten dituen gauzak?

FAMILI KIDEEN HARREMANEN KARAKTERIZAZIOA ETA HIZKUNTZA PAISAIAREN BALORAZIO GURUTZATUAK: KASU KOPURUA

Familiako kide bakoitzak beste kideekin dituen harreman motari buruzko karakterizazio orokorra	Famili kide bakoitzak beste kideen hizkuntza paisaiari buruz dituen pertzepzio orokorrak	Hizkuntza paisaiaren pertzepzioak, etxeko kide desberdinen arabera: norberarena eta familiako kide desberdinena
30	30	180



4.- HIZKUNTZA PAISAIA OBJEKTIBOAREN ESPERIMENTAZIOA

- Hizkuntza paisaia objektiboa herriz herri aztertzeko esperimendazio prozesuaren urrats nagusiak honako hauek izan dira:
 - Neurgarriak izan eta zuzeneko behaketaren bidez erregistra zitezkeen aldagaien inguruko hausnarketa esperimendala.
 - Behaketa zuzenean oinarritutako landa lana aurrera eramateko, eskuliburu metodologikoa modu esperimendalean eraiki zen lehenbizi. Egindako behaketak erregistratzeko, erdi-itxitako kategorien sistema batean oinarritutako fitxa diseinatu zen ondoren (zuzeneko behaketarako fitxa edo euskarri metodologikoa).
 - Informazio bilketa, zuzeneko behaketa bidez egindakoa: famili kide desberdinen ibilbideetako hizkuntza paisaia objektiboaren erregistroa fitxa bidez egiteko sistema.
 - Behatu eta erregistratutako hizkuntza paisaiako elementuen dokumentazio grafikoa (argazkiak aterez).
 - Fitxetan erregistratutako informazioaren grabaketarako programa informatikoaren diseinua eta prestaketa (datu oinarria).
 - Sortutako datu oinarriaren ustiaketa estatistikoa.
 - Emaizta kuantitatiboen irakurketa ilustratiboa.
- Hizkuntza Paisaiaren Laborategiko esperientziaren balantze modura, proiektuaren Memoria teknikoa eta eranskinak egin dira, jarraitutako prozesua modu sistematikoan azalduz eta baloratuz.



LABORATEGIAN APLIKATU DEN ZUZENeko BEHAKETA MOTA ESPERIMENTALAREN FITXA TEKNIKOA

Egituratua	Informazioa, datu bilketarekin hasi aurretik finkatutako irizpideen arabera jaso behar da. (Behaketa sistema esperimentalki egituratzeko irizpideen dossier metodologikoa sortzen da).
Naturala	Inguru natural batean burutzen da, alegia, hautatutako familia kideen eguneroko ibilbideetan (astegunetako eta asteburuetako ibilbideetan). Inolako eraginik gabe eta gertaeren berezkitasuna errespetatuz.
Ezkatukoa	Hizkuntza paisaiako elementuen behaketa zuzena egin nahi den ibilbide horietan dauden pertsonak, ez dute zertan jakin behaketa hori aurrera eramaten ari denik.
Zuzena	Neurketa zuzeneko da, neurtzailearen eta neurtu beharreko hizkuntza paisaiako elementuen artekoa, inolako bitartekorik gabe.
Pertsonal edo fisikoa, eta tekniko	Neurtzailea datu bilketarako hezi ondoren, pertsonalki hurbiltzen da neurtu beharreko errealitatera. Eta kasu askotan, argazki kamara digitala ere erabili zen.
Ez partehartzailea	Neurtzaileak errealitatera jotzen du ikusi eta entzuten duena jasotzeko baina bertan eragin gabe, bertan parte hartu gabe alegia.
Fokalizatua edo zentratua	Neurketa burutzeko, alde zuzenetik finkatutako aldagaiak izan behar dira kontuan.
Erregistrorako euskarri fisikoa duena	Aurrez zehaztuta zeuden ibilbideetan agertzen ziren hizkuntza paisaiako elementuak erregistratzeko edo jasotzeko, erdi-itxitako kategoria sistema bat sortu zen (datu bilketarako fitxa).

- Neurtutako hizkuntza paisaiako elementu bakoitza, honako aldagaiekin lotzen da: behaketa egindako udalerriarekin, esperimentua egiten ari den behatzailearekin, behaketa momentuarekin, eta hautatutako familia horretan ibilbide hori dagokion pertsonarekin.
- Ondorengo koadroan elementu bakoitza neurtzeko erabilitako oinarritzko aldagaiak, aldagai motaren bidez neurketa nola egin den (era irekian ala itxian), eta neurketa modalitateen kopurua adierazten da.



BEHAKETA BIDEZKO ERREGISTRO-SISTEMAREN OINARRIZKO ALDERDIAK

ELEMENTU BAKOITZAREKIN LOTURIKO NEURKETA-ALDAGAI NAGUSIENAK	NEURKETA-MODALITATEAK (KOPURUA)
1.- Ibilbide mota	2
2.- Unea: Ordua	Aldagai "irekia"
3.- Jarduera	Aldagai irekia
4.- Espazioa; Kalea/Plaza/Bidearen izena eta zenbakia	Aldagai irekia
5.- Eremua	12
6.- Titulartasuna	2
7.- Esparru mota	2
8.- Testuingurua	2
9.- Behaketa mota	2
10.- Tamaina	8
11.- Euskarri mota	18
12.- Funtzioa	3
13.- Hizkuntza erabilera	35
14.- Hizkuntza tratamendu formala	23
15.- Behatutako hizkuntzak (ikusitako testuak, entzundakoa)	Aldagai irekia

- Bestalde, hizkuntza paisaiako elementu askorentzat, euskara teknikari eta behatzaileek sortutako dokumentazio grafikoa ere jaso geratu da (guztira, euskarri magnetikoan 1.850 argazki digital inguru gorde dira).



- Hizkuntza paisaiaren elementuek oso errealtate zabala erakusten dute, eta errealtate zabal horren erregistro sistematikoa egiteak duen zailtasun-mailaz kontziente izanik, eta esperimentuan parte hartzen zuten behatzaileek neurketa lanak modu sistematikoan egiteko zituzten zailtasunak ere kontuan izanik, ibilbide bakoitzeko distantzia-tarteen arabera (100 metrokoa) kontraste eta homogeneotasuna neurri batean posible egiten zuen sistema landu zen: bertan, erregistratutako elementuen kopurua jasotzen zen, eta erregistratu ez zen elementuen portzentaia estimatzeko eskatzen zen, horretarako arrazoiak zeintzuk izan ziren zehaztuz.
- Esperimendua amaitu ondoren, txosten orokorrarekin eta erabilitako euskarri teoriko-metodologikoekin batera, datu oinarria ere entregatu zen (paisaiadat.mdb). Honen helburua, esperimentuan parte hartu zuten teknikariei, hizkuntza paisaian sakontzeko aukera ematea izan da, lan tresna modura euskara zerbitzuetan izan baitezake erabilgarritasunik datu oinarri horrek (behatutako datuak eguneratu edota grabatzeko, ustiaketa estatistiko esperimentalak egiteko...).



5.- ELKARRIZKETA SAKONEN ONDORIOAK

- Egindako esperimentazio lanak, zuzeneko informazio kualitatiboa jasotzeko egin beharreko bide eta burutu beharreko urrats desberdinek duten garrantziaz eta konplexutasunaz jabetzeko balio izan du:
 - Helburuak erdiesteko egokiak diren planteamendu eta diseinu teoriko-metodologikoak zehaztea.
 - Familiaren aukeraketarako zeharkako informazio iturri desberdinak identifikatu eta erabiltzea.
 - Famili kideen kontaktazioa eta parte hartzea adosteko harreman prozesua.
 - Ikerketa sozialerako, elkarrizketa sakona bezalako teknikaren aplikazioak eskatzen duen zorrotasun teknikoa eta errealitatearekiko malgutasuna.
 - Bildutako informazio bolumenaren tratamendua eta transkripzioak eskatzen duen arreta eta lan bolumena.
- Famili kideen izaera eta ezaugarri pertsonalak, faktore giltzarriak dira, batetik, norberak jokaten dituen rol desberdinen arabera, hizkuntza paisaiarekiko hartzen duen tokia desberdina delako (ikaslea, jubilatua, etxeko andrea, eroslea, auto gidaria, kirol praktikatzailea...) eta bestetik, norberaren ezaugarriekin lotutako zenbait faktoreren arteko konbinazioek, hizkuntza paisaia pertzibitzerakoan filtro modura jokaten dutelako:
 - ezaugarri soziodemografiko eta psikografikoak: gustuak, interesak, zaletasunak, alderdi estetiko-formalei erreparatzeko joera; inguruko estimuluetara irekita egoteko joerak; bizitza estiloak eta eguneroko jardunak inguruko harremanak zenbateraino zabaltzen dituen; komunikabideak jarraitzeko/kontsumitzeko ohiturak; irakurtzeko ohiturak; joan-etorrietarako moduak (oinez, autobusez, kotxez...).



- ezaugarri soziolinguistikoak: euskalduna izan ala ez, hizkuntzekiko motibatuta eta kontzientziatuta egon ala ez, euskara erabiltzeko (ahoz, idatziz..) ohitura izan ala ez,...
- Inguruko giroa osatzen duten ezaugarri desberdinek ere badute eragina hizkuntza paisaian eta bere pertzepzioan ere: ingurune naturala edota urbanoa, eguraldia, argitasun maila,...
- Famili kide desberdinei egindako elkarrizketetan alderdi objektibo eta kuantifikagarriei buruzko informazioa modu sistematikoan galdetu eta jasotzeko ahalegina egin da: elkarrizketatuaren ezaugarri soziodemografiko eta soziolinguistikoak, egindako ibilbideak, kontsumitzen diren komunikabideak,...
- Hizkuntza paisaiak familiako kideengan sortutako sentrazio eta bizipenei buruzko informazioa sistematikoki jasotzea zailago dela esperimendu da, besteak beste, alor honetan sakontzeak, esperimenduaren metodologia gehiago esperimendu eta gehiago sakontzea eskatzen duelako.
- Pertzibitu da baita ere, hizkuntza paisaia objektiboak errealitate sozialean duen presentzia anitza ("kartelak" baino askoz gehiago) eta zabalaren aurrean, elkarrizketatutako kide gehienek pertzepzio subjektiboan presentzia lausotuagoa edo sinplifikatuagoa duela. Horrek ez du esan nahi eraginik ez duenik, aitzitik, bere eragina oso handia izan daiteke. Izan ere, paisaiak sentrazioak, inpresioak eta sentimenduak eragiten ditu, eta hauek, sarritan maila arrazional eta kontzientean baino gehiago maila inkontziente eta emozionalean gertatzen dira.
- Oro har, ohikotasun handiarekin egiten diren ibilbideetan, hizkuntza paisaiak ohartu, interesa piztu eta arreta jartzeko, paisaiaren tratamendu estetiko-formalak deigarria izan behar duela antzeman daiteke, bestela oharkabean pasatzen da zenbait jende multzorentzat: hizkuntza paisaiaren ahozko edota idatzizko mezu esplizitua (esaten edota idazten dena) bezain garrantzitsua da horri ematen zaion tratamendu estetiko-formal integrala (irudia, kolorea, tamaina, kokapena, tonua...), elementu hauek direlako pertsonarengan lehendabiziko sentrazio inkontzienteak sortzen dituztenak.



- Informazio bilketarako familiako kide desberdinekin izan diren zuzeneko harremanek humanizatu egin dute jasotako informazioa (aurpegiak, sentimenduak, sentrazioak...), esperientzia teknikoaz gain, esperientzia emozionala ere hor geratu baita ikerlari esperimentalen buruetan. Hizkuntza normalizaziorako diagnostiko eta plangintzen atzean, iritzi, jarrera gustu, sentimendu, bizipen...desberdineko pertsonak daudela esperimentatu eta baloratzeko balio izan du.
- Familiako beste kideen hizkuntza paisaiari buruz jasotako adierazpenak, oro har, alderdi jakinetan zentratzen dira:
 - oro har, familiako kide bakoitzak, beste kideen hizkuntza paisaiari buruz hitz egiterakoan, paisaiaren ezaugarrietaz eta pertzibitzeko moduez baino gehiago, hizkuntza paisaiaz ohartzen den ala ez aipatzen du.
 - euskarri motari dagokionean, etxe barruko edota eremu pribatuko hedabideen kontsumoaz (prentsa, irratia, telebista...) eta kaleko "karteletaz" jardun dute.
 - hizkuntza paisaia, hizkuntza tratamendura mugatzeko joera dago: ahozko edo idatzizko elementuak zein hizkuntzatan dauden alegia.
 - bereiztu egiten da hizkuntza paisaia begiratzea/entzutearen eta ikusi/aditzearen artean, baina zaila da sakontzea batetik besterako urratsa baldintzatzen duten faktoreetan.
- Harreman afektiboak, sentimenduan oinarritzen diren neurrian, eta hizkuntza paisaia ere sentimendu eta sentrazioen sortzaile den neurrian, kideen arteko harreman afektibo horiek modu nabarmenean baldintza ditzakete hizkuntza paisaia pertzibitzeko moduak. Hizkuntza paisaia ikusteko moduan begiradaren heziketa prozesu bat badagoela esan daiteke.
- Aurrera begira, honakoak dira hizkuntza paisaia subjektiboa jaso eta aztertzerakoan planteatu daitezkeen garapen hipotesiak:
 - Hizkuntza paisaiak ikusle-entzulearengan sortzen dituen sentrazio, sentimendu, inpresioak...atera, jaso eta aztertzeko, teknika proiektiboak diseinatu eta aplikatzea elkarrizketa pertsonalak egiteko momentuan.



- Bildutako informazio kualitatiboa aztertzeko egin daitezkeen analisi mota desberdinak baloratu eta egokienak gerta daitezkeen artean esperimentaziorako oinarritzko formazio berria eskaintzea.

6.- BEHAKETA ZUZENAREN ONDORIOAK

- Hizkuntza paisaia objektiboak praktikan duen aniztasunak eta berau karakterizatzerakoan kontuan har daitezkeen aldagai kopuru altua, baliagarria izan da bere sistematizazio eta bilketa prozesuaren konplexutasunaz jabetzeko:
 - informazio bilketa hasi aurreko diseinuaren inguruko hausnarketa teknikoa egiteko aukera egon da.
 - Informazioa biltzeko dedikazio eta sistematizazio esfortzu handia egin da.
 - diseinu teoriko metodologikoa norberaren errealitatean aplikatzerakoan sortzen diren zailtasunak eta aldeak esperimentatu dira eta horien tratamendu sistematiko eta irakurketarako kontrol irizpideak finkatzeko beharra ikusi da.
- Hizkuntza paisaia osatzen duten elementu edo faktore batzuk egonkorragoak dira eta beste batzuk aldakorragoak:
 - Egonkorragoak eta estatikoagoak: kale izenak eta bide seinaleak, leku eta herri izenak, ekipamendu publikoen izenak...
 - Aldakorragoak eta dinamikoagoak: promozio eta publizitatearekin lotutakoak, iragarkiak, hedabideen eduki komunikatiboak...
- Hizkuntza paisaia aldatu egiten da, espazioan eta denboran zehar:
 - Espazioan: udalerrri batean, zonaldeen ezaugarri eta bertan garatzen diren funtzioen arabera, hizkuntza paisaia aldatu egiten da: zonalde komertziala, zonalde industrial, ekipamenduen zonaldea (ikastetxeak, eskolak...), landa eremua edo eremu urbanoa, eremu pribatua edo eremu publikoa...
 - Denboran: astegunak-asteburuak, goiza-arratsaldea-gaua, neguan-udan (oporretan),...
- Elkarrizketa pertsonalen bidez paisaia subjektiboa jaso den momentutik, behaketa zuzenaren bidez paisaia objektiboa jaso den momentura arte uzten



den denbora tartea baloratu eta mugatzea garrantzitsua da, honako arrazoiengatik:

- denboran zehar hizkuntza paisaia objektiboa aldatuz doalako.
 - denboran zehar pertsonen dinamikan gertatzen diren aldaketak (adibidez neguko edo udako dinamika eta ohiturak) edota ingurunean gertatzen direnak direla medio (argitasuna, eguraldia...) hizkuntza paisaia pertzibitzeko modua (paisaia subjektiboa) ere aldatu egiten delako.
- Zuzeneko behaketak egiterakoan, hizkuntza paisaia bisualak entzunezkoak baino pisu askoz handiagoa hartu du. Hala ere, errealitatean entzunezko hizkuntza paisaiaren presentzia oso nabarmena izateaz gain, garrantzia handikoa ere bada, hizketa modu eta doinu desberdinek pertsonengan sortzen dituzten sentsazioek asko eragiten dutelako hizkuntzekiko motibazio eta jarreretan. Hortaz, aurrerantzean planteia daitezkeen behaketetan, garrantzitsua izan daiteke entzunezko hizkuntza paisaia objektiboa jasotzeko ere irizpide metodologikoak aplikatzea.
 - Hizkuntza paisaia objektiboaren sistematizazio, bilketa eta azterketari begira, honako garapen hipotesiak planteia daitezke aurrera begira:
 - Eragin kuantitatiboaren ikuspegitik, behatzeko interesgarriena izan daitekeen hizkuntza paisaia, herritar gehienek egiten dituzten ibilbideetan aurkitzen dena da; alegia, herriko bizitza sozialaren gune nagusia den eremu fisikoaren barruan aurkitzen dena eta beraz, herritar gehienengan eragiteko potentzialitatea duena.
 - Erabiltzen den garraio moduak (kotxez, oinez, autobusez...) zeharo baldintzatzen du hizkuntza paisaia pertzibitzeko dugun denbora eta modua. Beraz, herritarrek beren ibilbideetan erabiltzen dituzten garraio modu desberdinen arabera behaketak egitea planteia daiteke.
 - Ikusmeneko hizkuntza paisaia osatzen duten elementuen neurri edo dimentsioa asko aldatzen da. Hortaz, lehentasunak finkatu behar izanez gero, interesgarria izan daiteke gutxienezko dimentsio jakin bat baino handiagoa duten elementuetan zentratzea.
 - Hizkuntza paisaia objektiboa jasotzeko aplikatu beharreko teknika metodologikoen ikuspegitik, bi eremu nagusi bereizten dira: eremu pribatua (etxea, lantokia edo ikastetxea...) eta eremu publikoa (aire libreko espazioak eta sarrera libreko ekipamenduak). Eremu publikokoa da behaketa zuzenaren teknikaren bidez jaso eta erregistratu daitekeena. Eremu pribatuko hizkuntza paisaia



objektiboa jasotzeko, bestelako teknika batzuk planteatu beharko lirateke.

- Hizkuntza paisaia objektiboa sistematizatu eta erregistratzeko, garrantzitsua izan daiteke paisaia horren pertzepzioetan eragin handia duten alderdi estetiko eta irudizkoekin zerikusia duten aldagaiak kontuan hartzea, hau da, hizkuntza idatziaren kasuan, honekin batera agertzen diren koloreak, grafia eta irudiak (argazki, marrazki, sinboloen presentzia edota erabilera) eta ahozko hizkuntzaren kasuan, erabiltzen diren erregistroak (formala, informala), ahozko hizkuntza horren igorle eta hartzaileen ezaugarriak...
- TEKNIKARI programarentzat, oro har, aztertutako ebaluazio faktoreak kontuan hartuta, Laborategiarekin aurrera jarraitzeko, une honetan lehentasunezkoztat jotzen dena ez da esperimentazio-proiektu berri bat (jada amaitutako esperimentuari jarraipena eman ahal izango liokeena), baizik eta programa horren beste proiektuekin loturiko estrategiak diseinatu eta martxan jartzerakoan, baliagarri eta eraginkorragoa gertatuko den ikerketa aplikaturako funtzioa aurrera eramatea.